ZERBITZU-KONTRATUA
PROZEDURA IREKIA,
ERREGULAZIO
HARMONIZATUAREN MENDE
EZ DAGOENA

ARABAKO LURRALDE HISTORIKOKO NEKAZARITZA-KANPAINETAN LAN EGITEN DUTEN PERTSONEN "JATORRIZKO KONTRATAZIOA" FORMULATIK ERATORRITAKO ARAZO SOZIAL, EKONOMIKO ETA KULTURALAK KONPONTZERA BIDERATUTAKO JARDUKETA-ZERBITZUAK PROZEDURA IREKI BIDEZ KONTRATATZEKO LIZITAZIOA ARAUTUKO DUEN ADMINISTRAZIO-BALDINTZA PARTIKULARREN AGIRIA.

1. KONTRATUAREN XEDEA

Prozedura honen xedea da HAZI Fundazioak Administrazio Baldintza Partikularren Agiri honetako Karatularen **1. puntuan** (aurrerantzean, Karatula) adierazitako zerbitzuak eskainiko dituen kontratista bat hautatzea.

Zerbitzu horiek Agiri honen, Preskripzio Teknikoen Agiriaren eta kontratistaren proposamenaren arabera eskainiko dira.

Kontratuaren CPV kodea **Karatularen 1. puntuan** dago.

2. ERAKUNDE KONTRATUGILEA ETA KONTRATAZIO-ORGANOA

Erakunde kontratugilea HAZI FUNDAZIOA da (aurrerantzean, erakunde kontratugilea).

Kontratazio-organoa **Karatularen 2. puntuan** adierazten dena da, eta dagokionean eta ezar daitezkeen eskubide pribatuko arauen arabera, berariaz eman ahal izango dizkie ahalak egoki iritzitako pertsonei kontratuarekin zerikusia duten jarduera zehatzak egiteko.

3. ADJUDIKAZIO-PROZEDURA

Kontratua prozedura ireki bidez adjudikatuko zaio kalitatea-prezio harreman onena duen eskaintza aurkezten duen lizitatzaileari, Agiri honetan ezarritako adjudikazio-prozedurekin bat (aurrerantzean, eskaintza onena).

4. ALDAKETAK

Lizitatzaileek aldagaiak aurkezteko aukera **Karatularen 3. puntuan** adierazten da.

Aldagaiak onartuz gero, **Karatularen 3. puntuan** daude gutxieneko baldintzak, motak eta horien ezaugarriak, baita kontratuaren xedearekin duen lotura ere.

5. KONTRATU-DOKUMENTAZIOA

Kontratu izaera izango dute dokumentu hauek:

- Administrazio Baldintza Partikularren Agiri honek eta honen Karatulak.
- Preskripzio Teknikoen Agiriak.
- Adjudikaziodunak aurkeztutako eskaintzak.
- **Karatularen 4. puntuan** adierazitako beste edozein dokumentaziok.

Dokumentu horiek adjudikaziodunak sinatu beharko ditu, ados dagoela adierazteko, kontratua formalizatzen den ekitaldi berean.

6. KONTRATUAREN IRAUPENA

Kontratuaren iraupena **Karatularen 5. puntuan** adierazitakoa izango da.

7. ELEMENTU EKONOMIKOAK

7.1. LIZITAZIOAREN OINARRIZKO AURREKONTUA ETA KONTRATUAREN PREZIOA

Lizitazioaren oinarrizko aurrekontua **Karatularen 6.1 puntuan** adierazi da.

Kontratuaren prezioa ere **Karatularen 6.1 puntuan** adierazi da.

Kontratuaren prezio horrek barne hartuko ditu kontratua gauzatzeko beharrezkoak diren kostu guztiak, besteak beste, hauek:

- Kontratua betearazteko beharrezko kostu guztiak, zuzenekoak zein zeharkakoak, Agiri honen eta Preskripzio Teknikoen Agirian aurreikusitakoaren arabera, eta ez da a posteriori onartuko amaierako prezioan aurrez sartu behar ziren kontzeptuen fakturazioa.

- Kontratua betearazteko berezko kontzeptu guztiak eta betearazpen horretan aritutako langileen gastuak (soldatak eta Gizarte Segurantza, oporrak eta aparteko ordainsariak, gaueko eta jaiegunetako lanaldiak, baja edo gaixotasunagatiko ordezkapenak, banakako istripu-aseguruak, etab.) zerga guztiak (BEZa izan ezik), aseguruak, lizentziak, garraio-gastuak eta joan-etorrietakoak, baimenak eta gainerako gastu orokorrak.

- Kontratua betearaztean kontratistak erabili beharreko beste edozein baliabide, lanabes, ibilgailu, ekipo, tresna, informatika-ekipo eta gailu.

- Kontratuaren garapen eta betearazpen zuzena ahalbidetzeko erakunde kontratugileak zehaztutako lan- edo informazio-bilera guztietara joatea.

- **Karatulako 6.1 puntuan** zerrendatutako beste edozein kontzeptu.

7.2. KONTRATUAREN BALIO ZENBATETSIA

Espainiako ordenamendu juridikora Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko otsailaren 26ko 2014/23/EB eta 2014/24/EB zuzentarauen transposizioa egiten duen Sektore Publikoko Kontratuen azaroaren 8ko 9/2017 Legearen (aurrerantzean, SPKL) 101. artikuluaren ondorioetarako, kontratuaren balio zenbatetsia **Karatularen 6.2 puntuan** adierazitakoa da.

Balio zenbatetsi hori SPKLren 101. artikuluan xedatutakoaren arabera kalkulatu da.

Aurreikuspen horrek ez du inolako konpromisorik erakunde kontratugilearentzat.

8. PREZIOA ORDAINTZEA

Kontratuaren prezioa hiruhilekoan behin ordainduko da, kontratistak dagokion faktura aurkeztu ondoren.

Enpresa kontratistak hiruhilekoko faktura xehatuak bidali beharko ditu, zerbitzuei dagokien hiruhilekoa amaitu eta hamabost egutegi-egunetako epean.

Erakunde kontratugileak hiruhilekoko zenbatekoa ordainduko du zerbitzuen hiruhilekoa amaitu eta 30 egutegi-eguneko epearen barruan, betiere fakturak adierazitako epean bidali badira eta erakunde kontratugileak ontzat eman baditu.

Ez da ordainduko Agiri honetan aurreikusitako kontratu-xedetik kanpo egindako lan edo zerbitzurik, edo, hala badagokio, erakunde kontratugileak aldez aurretik eskatu ez duenik.

9. PREZIOEN BERRIKUSPENA

Karatularen 8 puntuan artikuluan xedatutakoa aplikatuko da.

10. PUBLIZITATEA

Erakunde kontratugilearen kontratatzailearen profilean argitaratuko dira hauek:

- Lizitazioaren deialdiaren iragarkia.
- Kontratuaren adjudikazioaren iragarkia.
- Kontratuaren formalizazioaren iragarkia.
- SPKLren 63. artikuluan zerrendatutako gainerako informazioa.

Erakunde kontratugilearen kontratatzailearen profilean sartzeko webgune hau erabiliko da:
www.contratacion.euskadi.eus
www.hazi.eus

11. BEHIN BETIKO BERMEA

Ez da eskatzen.

12. KONTRATATZEKO GAITASUNA

Erakunde kontratugilearekin kontratatu ahalko dute pertsona natural edo juridikoek, espainiarrak edo atzerritarrak, baldin eta jarduteko gaitasun osoa badute, kontratatzeko debekurik ez badute eta kaudimena egiaztatzen badute.

Enpresa lizitatzaileek, halaber, kontratuaren xede diren prestazioak egiteko eska daitekeen enpresa- edo lanbide-gaikuntza eduki beharko dute.

Pertsona juridikoak kontratuaren adjudikaziodunak izan ahalko dira, betiere kontratu horien prestazioak lotura badute, estatutuen edo fundazio-erregelen arabera, kontratuaren xedeekin edo jarduera-eremuarekin.

Edonola ere, erakunde kontratugilearekin kontratatzeko gaitasuna izango dute Espainiakoak ez diren Europar Batasuneko estatu kideetako enpresek edo Europako Esparru Ekonomikoari buruzko Akordioa sinatu duten estatuetakoek, jatorrizko estatuko legediarekin bat. Horretarako, prestazioa egiteko gaikuntza izan beharko dute, eta SPKLren 67. artikuluan aurreikusitakoa aplikatuko da.

Enpresen jatorrizko estatuko legediak baimen berezi ba edo erakunde jakin bateko kide izatea eskatzen badu prestazioa egiteko, baldintza hori betetzen dutela egiaztatu beharko dute.

Espainiak nazioarteko akordioei jarraikiz dituen betebeharrak aplikatzeari kalterik egin gabe, Europar Batasuneko kideak ez diren edo Europako Esparru Ekonomikoari buruzko Akordioa sinatu duten estatuetako pertsona fisiko edo juridikoek txosten baten bidez egiaztatu beharko dute atzerriko enpresaren jatorrizko estatuak onartzen duela Espainiako enpresek parte hartzea SPKLren 3. artikuluan zerrendatutako sektore publikoko erakundeen baliokideak izan daitezkeen erakundeekiko kontratazioan, modu analogoan. Txosten hori Espainiak atzerrian duen Ekonomia eta Merkataritza Bulego batek egingo du, eta aurkeztutako dokumentazioan atxikiko da.

Erakunde kontratugilearekin kontratatu ahalko dute xede horretarako osatzen diren aldi baterako enpresari-elkarteek, eta ez da beharrezkoa izango horiek eskritura publikoan formalizatzea kontratua adjudikatu arte. Halaber, SPKLren 69. artikuluan aurreikusitakoa aplikatuko da.

Enpresa lizitatzaileek **Karatularen 10. puntuan** adierazitako kaudimen ekonomiko, finantzario, profesional eta teknikoaren gutxieneko baldintzak bete beharko dituzte.

Hala badagokio, enpresa lizitatzaileek kontratuaren exekuzioari atxiki beharko dizkiote, gutxienez, **Karatularen 10. puntuan** adierazitako giza baliabideak eta baliabide materialak.

Horrez gain, enpresa lizitatzaileek, hala badagokio, **Karatularen 10. puntuan** adierazitako baldintza espezifikoak bete beharko dituzte.

Enpresa lizitatzaileei eskatzen bazaie kontratuaren exekuzioari giza baliabide eta baliabide material jakinak atxikitzeko konpromisoa hartzeko, konpromiso horrek funtsezko kontratu-betebehar izaera izango du SPKLren 211. f) artikuluan aurreikusitako ondorioetarako; beraz, hori ez betetzea kontratua suntsiarazteko arrazoia izango da, erakunde kontratugilearen borondatez.

Kontratua suntsiarazi beharrean, kontratistak alde bakarretik aldatzen badu kontratuaren exekuzioari atxikitako pertsona, erakunde kontratugileak eskatu ahal izango du konprometitutako pertsona berehala atxikitzeko, edo, bestela, kontratistarekin zerikusirik ez duten arrazoiengatik ezinezkoa bada, prestakuntza eta

esperientzia bereko giza baliabideekin ordezkatzeko berehala. Pertsona horrek erakunde kontratugilearen berariazko baimena izan beharko du.

Eskatutako kaudimena edo bitartekoak atxikitzeko konpromisoa egiaztatzeko, enpresa lizitatzaileak beste erakunde batzuen kaudimenean edo bitartekoetan oinarritu ahalko dira, haiekin duen harremanaren izaera juridikoa edozein izanda ere, betiere frogatzen badu kontratuaren indarraldian zehar kaudimen hori eta bitarteko horiek izango dituela, eta beste erakunde horrek ez duela kontratatzeko debekurik.

Beste erakunde batzuen kaudimenean eta bitartekoetan oinarritu nahi diren enpresa lizitatzaileek hori adierazi beharko dute 1. gutun-azalean (zehazki, EKDBren II. zatiko C atalean) jaso beharreko erantzukizunpeko adierazpenean.

Horrez gain, eskaintza onena aurkezten duen enpresa lizitatzailea beste erakunde batzuen kaudimenean eta bitartekoetan oinarri nahi bada, frogatu beharko du beharrezko baliabideak izango dituela; horretarako, erakunde horien idatzizko konpromisoa aurkeztu beharko du (**II. eranskinean** jasotako ereduarekin bat).

Eskaintza onena aurkeztu duen enpresa lizitatzaileak konpromiso hori aurkeztuko du 10 egun balioduneko epean, kontratazio-organoak egindako eskaera jaso eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita.

Eskaintza onena aurkeztu duen enpresa lizitatzaileak konpromiso hori aurkeztuko du 10 egun balioduneko epean, kontratazio-organoak egindako eskaera jaso eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita.

Gaitasunari, kaudimenari eta kontratatzeko debekurik ez izateari lotutako inguruabarrak, klausula honetan jorratutakoak, indarrean egon beharko dira eskaintzak aurkezteko azken egunean eta kontratua perfekzionatzeko unean.

13. PROPOSAMENAK ETA DOKUMENTAZIOA AURKEZTEA

13 PROPOSAMENAK ETA DOKUMENTAZIOA AURKEZTEA

13.1. AGIRIETARAKO ETA GAINERAKO DOKUMENTU OSAGARRIETARAKO SARBIDEA

Agiriak eta gainerako dokumentu osagarriak eskuragarri egongo dira lizitazio-iragarkia argitaratzen denetik eta erakunde kontratugilearen kontratatzailearen profilean proposamen aurkezteko epean osoan zehar.

Agiriak eta gainerako dokumentu osagarriak eskuragarri jartzen badira bitarteko ez elektronikoetan, **Karatularen 11.1 puntuan** adieraziko da.

13.2. AURKEZTEKO BITARTEKOAK

Proposamenak bitarteko elektronikoen bidez aurkeztuko dira, SPKLren hamabosgarren xedapen gehigarrian ezarritako baldintzekin bat, betiere ez badago SPKLren xedapen gehigarri horren 3. atalean aurreikusitako inguruabarren bat eta **Karatularen 11.1 puntuan** hala adierazten ez bada.

Proposamenen aurkezpen elektronikorako informazioa eta zehaztapen teknikoak, zifratzea eta data balioztatzea barne, Eusko Jaurlaritzaren lizitazio elektronikoaren aplikazioaren webgunean daude, helbide honetan: https://apps.euskadi.eus/appcont/lizitazioa

Eskaintzak bi fasetan bidaliko ahalko dira bitarteko elektronikoen bidez; lehenik, eskaintzaren hatz-marka elektronikoa bidaliko da, eta hura jasotzean aurkezpena eginda egongo da ondorio guztietarako. Ondoren, eskaintza bidaliko da, gehienez ere 24 orduko epean. Ez bada bigarren bidalketa hori egiten adierazitako epean, ulertuko da eskaintza bertan behera gelditu dela.

Eskaintzaren hatz-marka elektronikoa datuen multzoa da, eta horiek sortzeko prozesuak bermatzen du lotura argia dutela eskaintzaren edukiarekin. Gainera, eskaintzaren edukiaren aldaketak hauteman ditzakete, eta, beraz, baita haren osotasuna bermatu ere. Espedientean jaso behar diren dokumentuen kopia elektronikoek administrazio-prozedura erkidearen indarreko legediak ezarritakoa bete beharko dute, eta ezarritako ondoreak sortuko dituzte.

13.3. GUTUN-AZALEN EDO ARTXIBO ELEKTRONIKOEN EDUKIA

Lizitatzaileen proposamenak Agiri honetara, Karatulara, Preskripzio Teknikoen Agirira eta kontratuaren gainerako dokumentuetara egokitu beharko dira, eta horiek aurkezteak berekin dakar lizitatzaileak klausula guztien edukia onartzea, baldintzarik, salbuespenik edo erreserbarik gabe.

Gutun-azal edo fitxategi elektroniko bakoitzean jarraian adieraziko diren dokumentuan sartuko dira, eta bertan jasotako dokumentuen zerrenda zenbakiduna atxikiko da.

Gutun-azalek izen hauek izango dituzte: 1. gutun-azala, 2. gutun-azala eta 3. Gutun-azala.

1. gutun-azala. "AURRETIKO BETEKIZUNAK BETETZEARI BURUZKO DOKUMENTAZIOA"

Enpresa lizitatzaileek honako dokumentazio hau aurkeztu beharko dute:

1. Erantzukizunpeko adierazpena: Agiri honetan **III. eranskin** gisa atxiki den Europako Kontratazio Dokumentu Bakarraren (aurrerantzean, EKDB) inprimakira egokituko da, eta jarraian adierazitakoaren arabera beteko da:

   - EKDB bete beharko da Europako Kontratazio Dokumentu Bakarraren inprimaki normalizatua ezartzen duen Batzordearen 2016ko urtarrilaren 5eko 2016/7 Exekuzio Erregelamenduaren (EB) I. eranskinean jasotako jarraibideekin bat.

   - EKDBren IV. zatiari ("hautaketa-irizpideak") dagokionez, lizitatzaileek soilik A atala bete beharko dute: "Hautaketa-irizpide guztiei buruzko adierazpen orokorra".

   - Enpresa lizitatzaileak beste erakunde batzuen kaudimena eta bitartekoak erabiltzen baditu, Agiriaren 12. klausularekin bat, horietako bakoitzak erantzukizunpeko adierazpen bat aurkeztu beharko du, non EKDBren II. zatiko A ("Operadore ekonomikoari buruzko informazioa") eta B ("Operadore ekonomikoaren ordezkariei buruzko informazioa") ataletan eta III. zatian eskatutako informazioa jasoko den.

   - Hainbat enpresak bat egiten badute aldi baterako elkarte batean, enpresa parte-hartzaile bakoitzak erantzukizunpeko adierazpen bat aurkeztuko du, non EKDBren II-V zatietan eskatutako informazioa jasoko den.

2. Aldi baterako elkarte batean parte hartu nahi duten enpresek hura osatzen dutenen izen-abizenak eta inguruabarrak adierazi beharko dituzte, baita bakoitzaren parte-hartzea ere. Gainera, adjudikaziodun izatekotan formalki aldi baterako elkarte bat osatzeko konpromisoa hartu beharko dute. Aldi baterako elkarte batean parte hartu nahi duten enpresariek betebehar solidarioa izango dute, eta ordezkari edo ahaldun bat izendatu beharko dute, kontratutik eratorritako eskubideak erabiltzeko eta betebeharrak betetzeko beharrezko ahalordeekin, kontratua iraungi arte, zenbateko handiko kobrantza eta ordainketak egiteko ahalorde mankomunatuak erabiltzeari kalterik egin gabe.

3. Atzerriko enpresek edozein ordenatako Espainiako epaimahai eta auzitegien jurisdikzioari men egiten diotelako berariazko adierazpena aurkeztu beharko dute, kontratutik modu zuzen edo zeharkakoan erator daitezkeen arazoei begira, eta, hala badagokio, lizitatzaileari dagokion atzerriko jurisdikzio-foruari uko egingo diote.

4. Jakinarazpenak jasotzeko lehenetsitako bitartekoa, Agirian **IV. eranskin** gisa atxikitako ereduarekin bat.

OHARRA:

Erakunde kontratugileak lizitatzaileei eskatu ahalko die justifikazio-dokumentu guztiak edo batzuk aurkezteko, uste duenean 1. puntuan adierazitako adierazpenaren indarraldiarekin edo fidagarritasunarekin lotutako zalantzak daudenean edo beharrezkoa denean prozedura behar bezala garatzeko.

Hala ere, enpresariak izena eman badu Sektore Publikoko Lizitatzaile eta Enpresa Sailkatuen Erregistro Ofizialean nahiz Euskal Autonomia Erkidegoko Kontratisten Erregistro Ofizialean edo Europar Batasuneko estatu kide baten datu-base nazioan batean dagoenean, hala nola enpresaren espediente birtual bat, dokumentuak gordetzeko sistema elektroniko bat edo aurrekalifikazio-sistema bat, eta horiek doakoak direnean aipatutako organoentzat, ez ditu aurkeztu beharko justifikazio-dokumentuak eta inskripzio-datuen froga dokumentalak.

2. gutun-azala. "BALIO-IRITZI BATEN BIDEZ KUANTIFIKA DAITEZKEEN IRIZPIDEEI BURUZKO DOKUMENTAZIOA"

Gutun-azal honetan, enpresa lizitatzaileek **Karatularen 11.2 puntuan** adierazitako dokumentazioa aurkeztu beharko dute.

Enpresa lizitatzaileak kontu handiz jokatu beharko du gutun-azal honetan jaso beharreko dokumentazioa biltzerakoan, eta eduki horri begira emandako jarraibideak bete beharko ditu. Halaber, ezingo dira egin eskaintzaren xehetasun ekonomikoak aurreikusi edo ezagutzera eman ditzaketen erreferentziak.

Printzipio horiek urratzen dituzten eskaintzak ezetsi egingo dira, eta prozeduratik kanpo geldituko dira.

Erakunde kontratugileak eskubidea izango du, halaber, egokitzat jotzen dituen egiaztapen-lanak egiteko edo beharrezkotzat jotzen duen dokumentazio gehigarria eskatzeko, enpresa lizitatzaileek aurkeztutako informazioa egiazkoa dela egiaztatzeko xedearekin.

3. gutun-azala. "FORMULEN BIDEZ EBALUA DAITEZKEEN IRIZPIDEEI BURUZKO DOKUMENTAZIOA"

Enpresa lizitatzaileek formulen bidez ebalua daitezkeen irizpideei buruzko dokumentazioa aurkeztu beharko dute Agiri honetan **V. eranskin** gisa atxiki den ereduarekin bat.

Erakunde kontratugileak, adjudikazioaren aurretik nahiz ondoren eta kontratuaren indarraldian zehar, egiaztatu ahalko du 1., 2. eta 3. gutun-azaletan jasotako dokumentuen edukia egiazkoa dela. Enpresak aurkeztutako datuak eta inguruabarrak gezurrezkoak badira, kontratua deuseztatu ahal izango da, enpresa kontratistari egotz dakiokeen ez-betetzearen ondorioz.

14. ADJUDIKAZIO-IRIZPIDEAK

Adjudikazio-irizpideak dagokien haztapenarekin adieraziko dira, eta **Karatularen 12. puntuan** jasotakoak izango dira.

15. EBALUAZIO BATZORDEA

Kontratazio-organoak Ebaluazio Batzordearen laguntza izango du, **Karatularen 13. puntuan** adierazitako kideak egongo dira Batzorde horretan.

16. PROPOSAMENAK IREKITZEA

Ebaluazio Batzordeak 1. gutun-azalean ("Aurretiko betekizunak betetzeari buruzko dokumentazioa") jasotako dokumentazioa kalifikatuko du aldez aurretik. Aurkeztutako dokumentazioan zuzendu daitezkeen akatsak hautematen baditu, erakunde kontratugileak hiru egun naturaleko epea emango dio enpresa lizitatzaileari, akatsak zuzen ditzan.

Jarraian, 2. gutun-azala ("Balio-iritzi baten bidez kuantifika daitezkeen irizpideei buruzko dokumentazioa") irekiko da, bertan jasotako dokumentazioa aztertu eta baloratzeko xedearekin.

2. gutun-azalean jasotako dokumentazioa aztertu eta baloratu ondoren, 3. gutun-azala ekitaldi publikoan irekiko da ("Formulen bidez ebalua daitezkeen irizpideei buruzko dokumentazioa").

3. gutun-azala ("Formulen bidez ebalua daitezkeen irizpideei buruzko dokumentazioa") ireki aurretik, lizitatzaileei balio-iritziaren menpeko irizpideei buruzko dokumentazioaren balorazioaren emaitza jakinaraziko zaie.

Ebaluazio Batzordeak 1098/2001 Errege Dekretuaren 84. artikuluan aurreikusitako kausak dituzten proposamenak baztertuko ditu; ondoren, kontratazio-organoari bidaliko dio aurkeztutako proposamenen zerrenda, handienetik txikienera ordenatuta,

Karatularen 12. puntuan ezarritako adjudikazio-irizpideekin bat, eta eskaintza onena identifikatuko du.

Proposamena egin aurretik, beharrezkotzat jotzen dituen txosten teknikoak eskatu ahalko ditu.

Puntuazio onena lortu duen eskaintza anormalki txikia bada **Karatularen 12. puntuan** adierazitako parametroen arabera, Ebaluazio Batzordeak SPKLren 149. artikuluan aurreikusitako prozedurari jarraituko dio, enpresa lizitatzaileak dagokion justifikazioa egin dezan.

Adjudikazio-proposamenak ez du inolako eskubiderik sortuko erakunde kontratugilearen aurrean proposatutako lizitatzailearen alde. Hala ere, kontratazio-organoak ez badu kontratua adjudikatzen formulatutako proposamenarekin bat, erabakia azaldu beharko du.

17. KONTRATUA ADJUDIKATZEA

Adjudikaziorako enpresa lizitatzailea aukeratzeko, kontratazio-organoak, oro har, bat egin beharko du Ebaluazio Batzordeak egindako proposamenarekin. Kontrako kasuan, kontratazio-organoak proposamenari uko egiteko erabakia azaldu beharko du, eta, hala badagokio, proposamenak behin betiko sailkatuko ditu.

Kontratazio-organoak Ebaluazio Batzordearen proposamena onartu ondoren, erakunde kontratugileak eskaintza onena aurkeztu duen lizitatzaileari eskatuko dio hamar egun balioduneko epean, eskaera jaso eta hurrengo egunean zenbatzen hasita, honako dokumentazio hau aurkezteko:

1. Eskaintzak aurkezteko azken egunean erakunde kontratugilearekin kontratuak egiteko legez ezarritako baldintza guztiak betetzen direla frogagiriak, eta Agiri honetako 12. klausulan gaitasunari, kaudimenari eta kontratatzeko debekurik ezari dagokienez eskatutako baldintza guztiak, jarraian adierazitako eran.

   Proposamena aldi baterako enpresa-elkarte batean lehiatu nahi duten enpresek egin badute, aipatu dokumentazioak elkartea osatzen duten enpresa guztiei buruzkoa behar du izan.

   (i) Enpresa lizitatzailearen eta, hala behar duenean, haren ordezkariaren jarduteko gaitasunaren eta nortasunaren egiaztagiriak:

   - Pertsona juridikoak diren enpresen kasuen, jarduteko gaitasuna honako hauen bidez egiaztatuko da: eraketa-eskritura edo dokumentua, bere jarduera arautzen duten arauak biltzen dituzten

Estatutuak edo fundazio-egintza. Eta, hala behar duenean, dagokion Erregistro Publikoan inskribatuta egongo dira dokumentu horiek, pertsona juridikoaren izaeraren arabera betiere.

- Europar Batasuneko estatu kideetako enpresa ez espainiarrek, beren jarduteko gaitasuna frogatzeko, dagokien estatuaren legeriaren arabera dagokien erregistroko inskripzioa aurkeztu beharko dute, edo zinpeko adierazpen bat edo ziurtagiri bat, Europar Batasunaren xedapen aplikagarrien arabera.

- Gainerako enpresa atzerritarren jarduteko gaitasuna Espainiak dagokion estatuan duen Diplomaziako Misio Iraunkorraren txostenaren edo ENPRESA egoitza dagoen lurralde esparruko bulego kontsularraren txostenaren bidez egiaztatuko da. Txosten horren bidez, honako hau justifikatu beharko dute: atzerriko enpresaren estatuak onartu egiten duela Espainiako enpresek kontratuak egin ahal izatea administrazioarekin eta SPKLren 3. artikuluan zerrendatzen diren sektore publikoko erakunde, organismo edo entitateekin; funtsean, antzekoa den moduan.

- Enpresen jarduteko gaitasuna egiaztatzeko, pertsona fisikoak badira, Nortasun Agiri Nazionala, edo dagokion estatuko baliokidea, aurkeztu beharko da.

- Beste baten izenean proposamenak aurkezten edo sinatzen dituztenek Nortasun Agiri Nazionalaren kopia aurkeztuko dute, eta horretarako beharrezkoa den ahalorde askietsia. Enpresa pertsona juridikoa bada, ahalordea Merkataritza Erregistroan inskribatu beharko da, hala eskatzen bada Merkataritza Erregistroaren Erregelamenduaren 94. artikuluan aurreikusitakoarekin bat, edo, hala badagokio, pertsona juridikoaren arabera dagokion erregistro publikoan.

Agiri horiek guztiak originalak edo behar bezala konpultsatutako kopiak izango dira.

Euskal Autonomia Erkidegoko Lizitatzaileen eta Enpresa Sailkatuen Erregistroan edo Estatuko Lizitatzaileen eta Enpresa Sailkatuen Erregistro Ofizialean inskribatutako enpresa lizitatzaileek erregistroko letraduak emandako indarreko inskripzio-ziurtagiriaren kopia aurkeztu ahalko dute atal honetan eskatutako dokumentazioaren ordez (i). Inskripzio-ziurtagiriarekin batera enpresa lizitatzaileak sinatutako erantzukizunpeko adierazpena aurkeztu beharko da; haren bidez, enpresa

lizitatzaileak adieraziko du dokumentuan jasotako inguruabarrak ez direla aldatu.

(ii) Agiri honen 12. klausulan eskatutako kaudimen ekonomiko, finantzario, tekniko eta profesionala egiaztatzeko dokumentazioa.

- Kaudimen ekonomiko eta finantzarioa. Hala badagokio, enpresa lizitatzailearen urteko negozio-bolumena hauen bidez egiaztatuko da:

  - Onartutako eta Merkataritza Erregistroan aurkeztutako urteko kontuak, enpresa erregistro horretan inskribatuta egonez gero, eta, bestela, dagokion onartutako eta dagokion erregistro ofizialean aurkeztutako urteko kontuak. Merkataritza Erregistroan inskribatu gabeko banakako enpresek urteko negozio-bolumena egiaztatuko dute Merkataritza Erregistroak legeztatutako inbentario-liburu eta urteko kontuen bitartez.

  - Enpresa lizitatzaileak sinatutako erantzukizunpeko adierazpena, haren negozio-bolumena adieraziz.

- Kaudimen teknikoa edo profesionala. Hala badagokio, eskatutako kaudimena azken hiru urteetan egindako zerbitzu edo lanen zerrenda baten bidez egiaztatuko da, eta bertan adieraziko dira zerbitzuen zenbatekoa, data eta hartzailea (publikoa edo pribatua). Egindako zerbitzu edo lanak egiaztatzeko, organo eskudunak egindako edo ikus-onetsitako ziurtagiriak aurkeztuko dira, hartzailea sektore publikoko erakunde bat bada, edo, hartzailea subjektu pribatua bada, hark egindako ziurtagiri bat aurkeztuko da. Ziurtagiri hori aurkezten ez bada, lizitatzailearen adierazpena aurkeztuko da, zerbitzuaren prestazioa gauzatu izana egiaztatzen duten lizitatzailearen dokumentuekin batera.

  Enpresa kontratista enpresa berria denean, hau da, bost urte baino gutxiago dituena, kaudimen teknikoa SPKLren 90.1 artikuluko b)-i) letretan adierazitako bitartekoen bidez egiaztatuko da, eta inolaz ere ez da aplikatuko a) letran adierazitakoa, zerbitzu-kopuru jakin bat emateari buruzkoa.

- Sailkapena. Hala badagokio, sailkapena organo eskudunak emandako ziurtagiriaren bidez egiaztatuko da, haren indarraldiari buruzko eta dagokion ziurtagirian jasotako inguruabarrak ez direla aldatu dioen erantzukizunpeko adierazpenarekin batera.

Adjudikaziodun izanez gero, adierazpen hori berretsi egin beharko da kontratua formalizatzeko dokumentuan.

Ziurtagiriak egiaztatu beharko du enpresa lizitatzailea zehaztutako talde eta azpitaldeetan dagoela sailkatuta, aipatutako kategorian edo gorago.

Halaber, ziurtagiri horrek 1. (I) atalean aipatutako inguruabarrak ere egiazta ditzake, hau da, lizitatzailearen eta, hala behar duenean, haren ordezkariaren jarduteko gaitasuna eta nortasuna.

(iii) Erantzukizunpeko adierazpena, zeinaren bitartez egiaztatzen den enpresa lizitatzaileak ez duela SPKLren 71. artikuluan jasotzen diren kontratatzeko

(iv) **Karatularen 10. puntuan** adierazitako baldintza espezifikoak betetzen direla egiaztatzeko dokumentazioa.

2. Hala badagokio, erabilitako eta kontratuari atxikitako giza baliabideak eta baliabide materialak egiaztatzeko dokumentazioa.

(i) Giza baliabideei dagokienez, hala badagokio, kontratuaren exekuzioari atxikitzeko, aukeratutako enpresa lizitatzaileak dokumentazio hau aurkeztu beharko du:

- Kontratuaren exekuzioari atxikitako taldearen izen-identifikazioa, curriculum vitae fitxekin batera, eskatutako baldintzak betetzen direla egiaztatzeko:

  1. Titulazio akademiko ofiziala.

  2. Esperientzia, dagokion arloan.

  3. Hala dagokionean, erakunde kontratugileak eskatzen duen bestelako edozein informazio.

- Giza baliabide guztiak erabili izana egiaztatzeko dokumentazioa.

Honako hau adierazten da: datuak babesteari buruzko araudi aplikagarrian aurreikustakoarekin bat eta giza baliabideei buruzko dokumentazioan jasotako informazioaren izaera aintzat hartuta, (i) informazio hori bildu eta erabiltzeak berekin dakar enpresa lizitatzaileak datuak tratatzea, tratamenduaren arduradun gisa; eta (ii) hori erakunde kontratugileari emateak, klausula honetan aurreikusitakoarekin bat, berekin ekarriko du hark datuak jakinaraztea, lagatzaile gisa.

Ondorio horietarako, aukeratutako enpresa lizitatzaileak datuak babesteari buruzko araudi aplikagarrian xedatutakotik eratorritako betebeharrak bete beharko ditu, aurreko paragrafoan aipatutako datuen tratamenduari eta jakinarazpenari dagokienez. Zehazki, eta, tratamenduaren arduradun gisa izan ditzakeen gainerako betebeharrei kalterik egin gabe, aukeratutako enpresa lizitatzaileak, bere erantzukizunpean, interesdunen baimen informatua lortu beharko du datu horiek jakinarazi ahal izateko. Lizitatzaileak hori egiaztatu beharko du erakunde kontratugilearen aurrean, hala eskatzen zaionean.

(ii) Baliabide materialei dagokienez, hala badagokio, kontratuaren exekuzioari atxikitzeko, aukeratutako enpresa lizitatzaileak dokumentazio hau aurkeztu beharko du:

- Kontratuaren exekuzioari atxikitako baliabide materialen identifikazioa, eskatutako baldintzak betetzen direla egiaztatzeko dokumentazioarekin batera.

- Baliabide material guztiak erabili izana egiaztatzeko dokumentazioa.

Erakunde kontratugileak eskubidea izango du egokitzat jotzen dituen egiaztapen-lanak egiteko edo beharrezkotzat jotzen duen dokumentazio gehigarria eskatzeko, enpresa lizitatzaileek aurkeztutako informazioa egiazkoa dela egiaztatzeko xedearekin.

3. Agiri honen 11. klausulan aurreikusitako behin betiko bermea ordaindu izanaren egiaztagiria.

4. Hala badagokio, enpresa lizitatzailea beste erakunde batzuen kaudimenean eta bitartekoetan oinarritu nahi bada, eskatutako kaudimena edo bitartekoak atxikitzeko konpromisoa egiaztatzeko erantzukizunpeko adierazpena, **II. eranskineko** ereduaren arabera.

5. Hala badagokio, aldi baterako enpresari-elkartea osatu izanaren egiaztapena; ordezkari edo ahaldun bat izendatu beharko dute, kontratutik eratorritako eskubideak erabiltzeko eta betebeharrak betetzeko beharrezko ahalordeekin, kontratua iraungi arte

Erakunde kontratugileak eskubidea izango du egokitzat jotzen dituen egiaztapen-lanak egiteko edo beharrezkotzat jotzen duen dokumentazio gehigarria eskatzeko, enpresa lizitatzaileek aurkeztutako informazioa egiazkoa dela egiaztatzeko xedearekin.

Aurkeztutako dokumentazioan zuzendu daitezkeen akatsak hautematen baditu, erakunde kontratugileak hiru egutegi-eguneko epea eman ahalko dio enpresa lizitatzaileari, akatsak zuzen ditzan.

Dokumentazio-eskaera horri ez bazaio behar bezala erantzuten adierazitako epean edo aurkeztutako dokumentazioak zuzendu ezin diren akatsak edo omisioak baditu, ulertuko da enpresa lizitatzaileak eskaintza kendu duela, eta lizitazioaren oinarrizko aurrekontuaren % 3 ordaintzeko eskatuko zaio (BEZik gabe), zigor-kontzeptuan. Halaber, hurrengo enpresa lizitatzaileari dokumentazio berdina eskatuko zaio, eskaintzen sailkapen-ordenari jarraikiz.

Kontratazio-organoak eskatutako dokumentazioa jaso eta bost egun balioduneko epean adjudikatuko du kontratua; gehienez ere 2 hilabeteko epea edukiko du, proposamenak irekitzen diren egunetik aurrera zenbatzen hasita.
Kontratazio-organoak egingo du adjudikazioa, ebazpen arrazoituaren bidez, eta hautagai eta lizitatzaileei jakinaraziko zaie, horiek jakinarazpenak jasotzeko aukeratutako bitartekoaren bidez. Halaber, erakunde kontratugilearen kontratatzailearen profilean argitaratu beharko da, 15 egun naturaleko epean.

18. KONTRATUA BURUTZEA ETA FORMALIZATZEA

Kontratua formalizatzen den unean burutuko da.

Kontratua dokumentu pribatu batean formalizatuko da, eta bat egingo du zehatz-mehatz lizitazioaren baldintzekin, Kontratua formalizatzen duen dokumentuan ezin izango dira inola ere sartu kontratazioaren baldintzak aldatzea ekarriko duten klausulak.

Enpresa adjudikaziodunak, hala ere, eskatu ahalko du kontratua eskritura publiko bihurtzeko, eta dagozkion gastuak bere kontura izango dira.

Formalizazioa gehienez ere hamabost egun balioduneko epean egingo da, enpresa lizitatzaile eta hautagaiei adjudikazioa jakinarazten zaien egunean zenbatzen hasita.

Kontratuaren formalizazioa eta kontratua erakunde kontratugilearen kontratatzailearen profilean argitaratuko dira, kontratua burutu eta gehienez ere hamabost egun naturaleko epean.

Enpresa adjudikaziodunari egotzi ahal zaizkion kausen ondorioz ez bada kontratua formalizatu adierazitako epearen barruan, lizitazioaren oinarrizko aurrekontuaren % 3 ordaintzeko eskatuko zaio (BEZik gabe), zigor-kontzeptuan. Horri erantzuteko behin betiko bermea erabiliko da, SPKLren 71. artikuluaren 2. atalaren b) letran

aurreikusitakoari kalterik egin gabe. Kasu horretan, kontratua hurrengo lizitatzaileari adjudikatuko zaio, eskaintzen sailkapen-ordenari jarraikiz, Agiri honen 17. klausulan eskatutako dokumentazioa aurkeztu ondoren; hori aurkezteko hamar egun balioduneko epea emango da.

19. KONTRATUAREN ARDURADUNA

Kontratazio-organoak kontratuaren arduradun bat izendatuko du, eta haren esku egungo da exekuzioa gainbegiratzea eta adostutako prestazioa modu egokian egingo dela bermatuko duten neurriak hartu eta aginduak ematea, erakunde kontratugileak ematen dizkion eskumenen esparruaren barruan.

Kontratuaren arduraduna pertsona fisikoa edo juridikoa izan daiteke, erakunde kontratugilekoa edo kanpokoa.

Kontratuaren arduradunak emandako jarraibideak nahitaez bete beharko ditu kontratistak.

20. KONTRATUA BETEARAZTEA

Kontratua honako baldintza hauen arabera betearaziko da:

Enpresa kontratistak kontratua betearaziko du termino eta baldintzen arabera, Administrazio Baldintza Partikularren Agiri honetan, Karatulan, Preskripzio Teknikoen Agirian eta kontratistak aurkeztutako eskaintzan xedatutakoarekin bat. Horrez gain, erakunde kontratugileak enpresa kontratistari emandako jarraibideak ere bete beharko dira.

- Kontratua lan-alorrean, Gizarte Segurantzan, segurtasunean eta osasunean aplikagarriak diren indarreko xedapen legalak, erregelamendu-xedapenak eta xedapen konbentzionalak betetzearen menpe dago.

  Horrez gain, enpresa kontratistak lan-baldintzei buruz eskatzen den informazio guztia emateko betebeharra du, kontratua adjudikatu ondoren langileei aplikatzen zaizkienean.

  Kontratua egikaritu bitartean, enpresa kontratistak langileari dagokion kategoria profesionalaren arabera aplikagarria den hitzarmen kolektiboan jasotako soldata ordaindu beharko du, eta ordaindu beharreko soldata ez da inolaz ere hura baino txikiagoa izango.

Atal honetan xedatutakoa exekuzio-baldintza berezia eta funtsezko betebeharra izango da SPKLren 211.f) artikuluan aurreikusitako ondorioetarako; beraz, hori ez betetzea kontratua suntsiarazteko arrazoia izango da, erakunde kontratatzailearen borondatez.

- Kontratua enpresa kontratistaren arrisku eta menturarekin gauzatuko da.

- Erakunde kontratugileak kontrolatu, egiaztatu eta gainbegiratu ahal izango du, une oro eta edozein bitartekorekin, kontratuaren betebeharrak zuzen betetzen ari direla eta kontratua behar bezala betearazten ari dela.

  Xede horretarako, erakunde kontratugileak egokitzat jotzen dituen kanpoko laguntzak bilatu ahalko ditu kontratuaren betebeharrak zuzen betetzen ari direla eta lanen kalitate-maila egokia dela egiaztatzeko edo horren auditoretza egiteko.

  Enpresa kontratistak erakunde kontratugileari emango dizkio hark zerbitzuei buruz eskatzen dizkion datu guztiak, eta beharrezko laguntza emango dio kostu gehigarririk gabe. Gainera, lan- nahiz administrazio-agirietarako eta beste edozein motako agirietarako sarbidea bermatuko dio, baldin eta lotura badute kontratatutako zerbitzuekin.

  Enpresa kontratistak ezingo ditu oztopatu erakunde kontratugilearen ikuskaritza- eta kontrol-lanak.

  Hala ere, erakunde kontratugileak ez-betetzeren bat edo eragozpenen bat hautematen badu, zuzenean kontratuaren arduradunari jakinaraziko zaio, eta haren esku egongo dira, azken batean, zerbitzua ematen duten langileen antolakuntza-, gainbegiratze- eta hala badagokio zehapen-eskumenak.

- Langile guztiak enpresa kontratistaren menpe egongo dira guztiz, eta hark izango ditu soilik enpresa enplegatzaile gisa dituen eskubide eta betebeharrak. Halaber, ezingo zaio lan-harreman horiekin edo gainerako betebeharrekin lotutako erreklamaziorik egin erakunde kontratugileari.

  Xede horietarako, kontratistak bere gain hartuko ditu betebehar hauek:

  1. Enpresa kontratistak soilik aukeratuko ditu kontratuaren betearazpenari atxikitako lantaldea osatuko duten langileak, eta Agirian eskatutako titulazio- eta esperientzia-baldintzak bete beharko dituzte, erakunde kontratugileak baldintza horiek betetzen direla egiaztatzeari kalterik egin gabe.

2. Enpresa kontratistak egonkortasuna bermatuko du lantaldearen barruan, eta aldaketek, behin-behinekoak izateaz gain, justifikatutako arrazoiak izan beharko dituzte, zerbitzuaren funtzionamendu egokia ez aldatzeko. Halaber, une oro horren berri emango zaio erakunde kontratugileari.

3. Enpresa kontratistak bere gain hartuko du kontratua betearazteaz arduratuko den lantaldea osatzen duten langileak zuzentzeko ahalordea, enpresa orori dagokiona, modu erreal, eraginkor eta jarraituan erabiltzeko betebeharra.

   Bereziki, honako hauek hartuko ditu bere gain: soldatak negoziatzea eta ordaintzea; baimenak, lizentziak eta oporrak ematea; bajan edo absentzian dauden langileen ordezkapenak; Gizarte Segurantzaren arloko legezko betebeharrak (hala dagokionean, kotizazioak eta prestazioak ordaintzea barne); laneko arriskuen prebentzioaren arloko legezko betebeharrak; diziplina-ahala erabiltzea; eta enplegatutako alderdiaren eta alderdi enplegatzailearen arteko kontratu-harremanetik eratorritako eskubide eta betebehar guztiak.

4. Enpresa kontratistak bereziki zainduko du kontratuaren betearazpenari atxikitako langileek kontratuaren xede gisa baldintza-agiri hauetan mugatutako jarduerari dagokionez betetzen dituzten funtzioak gainditu gabe garatzen dutela beren jarduera.

5. Enpresa kontratistak gutxienez koordinatzaile tekniko edo arduradun bat izendatu beharko du, bere plantillakoa, eta honako betebehar hauek izango ditu, besteak beste:

   a) Enpresa kontratistaren solaskide jardutea erakunde kontratugilearen aurrean, alde batetik, kontratistaren eta kontratuari atxikitako lantaldeko langileen eta, bestetik, erakunde kontratugilearen arteko komunikazioa bideratuz, kontratua betearaztearen ondoriozko gaiei dagokienez.

   b) Lana kontratua betearazteaz arduratzen diren langileen artean banatzea, eta kontratatutako zerbitzua emateko beharrezkoak diren aginduak eta jarraibideak ematea.

   c) Lantaldea osatzen duten langileek agindutako eginkizunak behar bezala betetzen dituztela gainbegiratzea eta langile horiek lanpostura joaten direla kontrolatzea.

   d) Kontratuaren betearazpenari atxikitako langileen opor-araubidea antolatzea; horretarako, kontratista behar bezala koordinatu

beharko da erakunde kontratugilearekin, zerbitzuaren funtzionamenduan ez eragiteko.

e) Kontratuaren betearazpenari atxikitako lantaldearen osaeran izandako aldaketen (noizbehinkakoak edo iraunkorrak) berri ematea erakunde kontratugileari.

Enpresa kontratista izango da arduradun bakarra kontratua betearazteko ardura duten langileekin —langile propioekin edo noizean behin azpikontratatzen direnekin— lotutako edozein ezbehar edo erreklamazioren aurrean (judiziala edo estrajudiziala). Erakunde kontratugileak ez du lan erantzukizunik (laneko segurtasun, higiene eta osasunarekin lotutakoa barne), ezta Gizarte Segurantzarekin edo zerga esparruarekin lotutako erantzukizunik ere, kontratistak zuzenean edo zeharka hartzen dituen betebeharrei dagokienez. Modu berean, kontratistak bere gain hartuko ditu kontratua betearaztearen ondorioz gerta daitezkeen ezbeharrek eragindako erantzukizunak bakarrik.

- Enpresa kontratistak bere bulego edo instalazioetan gauzatu beharko du kontratua, non eta karatulan eta/edo preskripzio teknikoen agirian ez den adierazten zerbitzuak erakunde kontratugilearen bulegoetan edo instalazioetan eman behar direla.

  Kasu horretan, erakunde kontratugileak enpresa kontratistaren eskura jarriko ditu erakunde kontratugileko langileek betetzen dituzten espazioetatik bereizitako espazioak, eta kontratistari dagokio kontratuaren betearazpenari atxikitako langileek adjudikatutako enpresaren berezko zaintzea.

  Kontratuaren xedea dela eta, enpresa kontratistak erakunde kontratugilearen bulegoetan edo instalazioetan eman behar baditu zerbitzuak, enpresa kontratistak, prestazioa ematen hasi aurretik, kontratuaren betearazpenari atxikitako langileak Gizarte Segurantzan afiliatuta eta alta emanda daudela egiaztatu beharko du.

- Enpresa kontratistak klausula honen arabera bere gain hartutako betebeharrak ez betetzearen ondorioz erakunde kontratugilea kontratistarekin elkartasunez zenbatekoak ordaintzera kondenatzen badute, kontratistari ordaindutakoa jasanaraziko zaio, eta, horretarako, erakunde kontratugileak egoki eta komenigarri den edozein akzio, administratibo edo judizial, gauzatu ahal izango du, ordaindutako zenbateko guztiak berreskuratu arte.

- Enpresa kontratistak bete egin beharko ditu, hala badagokio eta berariaz, Karatularen **15. puntuan** ezarritakoa baldintzak.

21. FUNTSEZKO KONTRATU-BETEBEHARRAK

Honako hauek izango dira funtsezko kontratu-betebeharrak:

- Kontratuaren betebehar nagusia betetzea, klausuletan, Agiri honetan eta Preskripzio Teknikoen Agirian ezarritakoarekin bat.

- Lan, Gizarte Segurantza eta laneko segurtasun- eta osasun-arloan ezar daitezkeen eta indarrean dauden legezko, erregelamenduzko eta hitzarmenezko xedapenak betetzea, Agiriaren 20. klausularen bigarren atalean jasotako baldintzetan. Testuinguru horretan, kontratua egikaritu bitartean, enpresa kontratistak langileari dagokion kategoria profesionalaren arabera aplikagarria den hitzarmen kolektiboan jasotako soldata ordaindu beharko du, eta ordaindu beharreko soldata ez da inolaz ere hura baino txikiagoa izango.

- Enpresa kontratistaren eskaintzak jasotako giza baliabideak eta baliabide materialak kontratuaren betearazpenari atxikitzea.

- Jarduera aurrera eramateko beharrezkoak diren lizentzia eta baimen guztiak lortzea.

- Zerbitzuak ematea, une bakoitzean aplikagarria den indarreko araudi sektorialean xedatutakoarekin bat. Xede horietarako, enpresa kontratistak eta bertako langileek une bakoitzean indarreko araudiak eskatzen dizkien betebeharrak betetzen dituztela egiaztatzeko ziurtagiriak izan beharko dituzte.

- Agiriaren 25. klausulan enpresa kontratistari eskatutako estaldura eta aseguru propioak kontratatu eta mantentzea, gutxienez kontratua betearazi bitartean.

- Kontratua betearazteak eskatzen dituen eragiketen ondorioz hirugarrenei eragiten zaizkien kalte eta galera guztiak ordaintzea.

- Erakunde kontratugileak kontratua zuzen garatu eta betetzeko beharrezkotzat jotzen dituen zerbitzuak ematea, ordainketa gehigarririk gabe, esate baterako lan- edo informazio-bileretan parte hartzea. Betebehar hori indarrean egongo da kontratua amaitu arte.

- Zerbitzuak betetzea greba-kasuetan. Ez badira zerbitzuak bermatzen, erakunde kontratugileak eskumena izango du zerbitzuak estaltzeko beharrezko kontratuak sinatzeko, eta fakturaziotik kenduko da kontratu horiei dagokien zenbatekoa.

Greba-aldian zehar, soilik benetan emandako zerbitzuei dagokien prezioa ordainduko da.

- Langileak ordezkatzea euren funtzioa ardura eta efizientzia egokiarekin betetzen ez badute, gaitasunik ez badute, zerbitzuak ematean arretaz jokatzen ez badute edo kontratuaren betearazpen egokia kaltetu dezaketen ekintzak egiten badituzte. Ordezkapenak gehienez ere hogeita lau orduko epean egingo dira, erakunde kontratugileak eskaera egiten duenetik zenbatzen hasita. Langileak ordezkatzeak ez dio enpresa kontratistaren eta eragindako langileen arteko harremanekin lotutako erantzukizunik emango erakunde kontratugileari.

  Langile horiek egiaztatu beharko dute, jarduketa gasi aurretik, dagokien baimena dutela.

- Gaixotasunekin, oporrekin, baimenekin, lizentziekin, istripuekin, eta abarrekin lotutako bajak estaltzeko langile-ordezkapenak egitea, kontratatutako zerbitzuen prestazio eraginkor eta jarraitua bermatzeko. Hori gehienez ere hogeita lau orduko epean egingo da.

- Emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren baldintza sozial berezia betetzea tratuan, enplegua lortzeko aukeran, sailkapen profesionalean, sustapenean, iraunkortasunean, prestakuntzan, kontratua azkentzean, ordainsarietan, lanaren kalitatean eta egonkortasunean, lanaldiaren iraupenean eta antolaketan. Halaber, neurriak hartu beharko dira langileek bizitza pertsonala, familiarra eta lanekoa kontziliatzeko.

- Datu pertsonalen babesaren arloan dagozkion betebehar guztiak betetzea eta behar bezala egiaztatzea, Agiri honetan, Karatulan eta gai horren arloan aplikatzekoa den araudian aurreikusitakoaren arabera.

- Kontratistak bete egin beharko ditu, hala badagokio eta berariaz, **Karatularen 16. puntuan** ezarritako betebeharrak.

Klausula honetan eta **Karatularen 16. puntuan** aurreikusitako betebeharrak funtsezko kontratu-betebeharrak izango dira SPKLren 211. f) artikuluan aurreikusitako ondorioetarako, eta, beraz, horiek ez betetzea erakunde kontratugileak kontratua suntsiarazteko arrazoia izango da.

22. DATU PERTSONALEN BABESA

Enpresa kontratistak, tratamenduaren arduradun gisa, bete egin beharko ditu Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 (EB) Erregelamenduak, datu pertsonalen tratamenduari eta datu horien zirkulazio askeari

dagokienez pertsona fisikoak babesteari buruzkoak (aurrerantzean, DBEO), eta kontratua indarrean dagoen bitartean datuen babesari buruz aplika daitekeen beste edozein arauk ezartzen dizkioten betebeharrak, bere jardueren esparruan nahiz bere kontura eta berak hala erabakita egiten dituen datu pertsonalen tratamenduengatik.

Betebehar hori ezartzen da alde batera utzi gabe, hala badagokio, **Karatularen 17. puntuan** berariaz ezarritakoa, erakunde kontratugileak datu pertsonalak tratatu behar izanez gero.

23. KONFIDENTZIALTASUNA ETA SEKRETU-BETEBEHARRA

Informazio publikoa eskuratzearen inguruan indarrean dagoen legerian eta SPKLren xedapenetan jasotakoa alde batera utzi gabe –adjudikazioaren publizitateari eta enpresa hautagai eta lizitatzaileei eman beharreko informazioari dagokienez–, erakunde kontratugileak ezin izango du hedatu enpresa lizitatzaileek emandako informazioa, baldin eta horiek hura konfidentzialtzat adierazi badute euren eskaintza aurkezteko garaian. Konfidentzialtasunak eragina du, besteak beste, sekretu tekniko edo komertzialetan, eskaintzen diren alderdi konfidentzialetan eta lehia faltsutzeko erabil daitekeen beste edozein informaziotan –lizita prozedura honetan nahiz ondorengo batzuetan–.

Enpresa kontratistak, bere aldetik, kontratua betearaztean eskuratzen duen informazioaren konfidentzialtasuna gordeko du, agirietan edo kontratuan izaera hori ematen bazaio edo berez konfidentzialtzat tratatu behar bada.

Konfidentzialtasun-betebehar horri **Karatularen 18. puntuan** adierazitako epean eutsi behar zaio.

24. ERANTZUKIZUNA

Enpresa kontratistak izango du egiten dituen lanen eta emandako prestazioen eta zerbitzuen kalitate teknikoaren erantzukizuna, baita kontratua betearaztean egiten dituen ez-egiteek, akatsek, metodo desegokiek edo okerreko burutzapenek erakunde kontratugileari edo hirugarren batzuei eragin diezazkieketen ondorioena ere.

Enpresa kontratistaren betebeharra izango da kontratua betearazteak eskatzen dituen eragiketen ondorioz hirugarrenei eragiten zaizkien kalte eta galera guztiak ordaintzea.

25. ASEGURUAK

Enpresa kontratistak bere kontura kontratatuko ditu, kontratuaren iraupen osorako, **Karatularen 20. puntuan** adierazitako aseguruak, bertan finkatutako termino eta baldintzetan.

26. JABETZA INTELEKTUALA ETA/EDO INDUSTRIALA

Enpresa kontratista behartuta dago iturri baimenduetatik eta bere kontura eskuratzera lizentziak eta eskubideak, ekipamendu informatikoak (hardwarea eta softwarea) edo beste ekipamendu eta bitarteko osagarri batzuk erabili eta/edo ustiatu ahal izateko, Agiri honetan eta Preskripzio Teknikoen Agirian ezarritakoaren arabera, horiek atxiki, jarri eta/edo mantendu behar baditu Agiriaren xede diren zerbitzuak emateko.

Halaber, SPKLren 308.1 artikuluan xedatutakoa aplikatuko zaio kontratazio honi. Hori horrela izanik, kontratu honen xede diren zerbitzuak gauzatzerakoan erakunde kontratugilearentzat sortu, diseinatu edo garatutako edozein emaitzaren jabetza erakunde kontratugilearena izango da bakarrik, osotasunean eta fase guztietan. Hori guztia Jabetza intelektualari buruzko Legearen testu bategina onartzen duen apirilaren 12ko 1/1996 Legegintzako Errege Dekretuan eta Patenteei buruzko uztailaren 4ko 24/2015 Legean xedatutakoaren arabera, kontratistari egokitu dakizkiokeen egilearen eskubide moralak eta/edo asmatzaile gisa aitortua izateko eskubidea alde batera utzi gabe, eta horiek behar bezala aintzat hartu beharko ditu erakunde kontratugileak.

Ondorioz, eta, hala badagokio, **Karatularen 19. puntuan** berariaz ezarritakoa eragotzi gabe, enpresa kontratistak erakunde kontratugileari bermatu beharko dio kontratuaren xede diren zerbitzuen emaitzaren erabilera baketsua. Halaber, hala badagokio, behartuta egongo da horren parte diren elementu guztien lizentziak eta eskubideak modu legitimoan eta baimendutako iturrietatik lortzera, eta, horiek ematean, adieraziko du ez dagoela kontratazio honen arabera erakunde kontratugileari dagozkion eskubideen kontrako inolako konpromisorik edo kargarik.

Edonola ere, enpresa kontratista erantzulea izango da kontratuarekin zerikusirik ez duten hirugarrenek, jabetza intelektualari eta/edo industrialari dagokienez, hauekin lotuta egiten dituzten erreklamazioez:

- Jabetza industrialaren edo intelektualaren eskubideen bidez babestutako materialak, erremintak eta tresnak erabiltzea zerbitzuak emateko.

- Kontratazioaren xede diren zerbitzuen emaitza edo emaitza horren parte den edozein elementu.

Aurrez aipatutakoa kontuan hartuta, enpresa kontratistak kalte eta galerak ordaindu beharko dizkio erakunde kontratugileari, aipatutako arrazoiengatik egindako erreklamazioen ondorioz sortu badira.

27. ZIGORRAK

a) Berandutzeagatiko zigorrak

0Enpresa kontratista, berari egotzi ahal zaizkion arrazoiengatik, Agiri honetan edo Karatulan zehaztutako epeak betetzean berandutuz gero, erakunde kontratugileak aukera izango du, nahierara, kontratua suntsiarazteko –Agiri honen 33. klausulako baldintzetan– edo hura gauzatzen jarraitzeko. Azken kasu horretan, erakunde kontratugilearen alde sortuko dira **Karatularen 21. puntuan** adierazitako zigorrak, bidezkoak diren kalte-galeren ordain guztiez gainera.

Enpresa kontratista berandutuz gero, ez da aurretiko intimaziorik beharko erakunde kontratugilearen aldetik.

b) Kontratatutako prestazioak akatsez gauzatzeagatiko edo kontratuko beste edozein baldintza ez betetzeagatiko zigorra.

Enpresa kontratista, berari egotzi ahal zaizkion arrazoiengatik, kontratatutako prestazioak akatsez gauzatzen baditu edo kontratuko beste edozein baldintza betetzen ez badu, erakunde kontratugileak aukera izango du, nahierara, kontratua suntsiarazteko –Agiri honen 33. klausulako baldintzetan– edo hura gauzatzen jarraitzeko. Azken kasu horretan, erakunde kontratugilearen alde sortuko dira **Karatularen 21. puntuan** adierazitako zigorrak, bidezkoak diren kalte-galeren ordain guztiez gainera.

Zigorrak ordaintzeko, kontratistari ordainketa osoa edo zatikoa egiteko ordaindu beharreko kopuruak kenduko zaizkio, edo bermetik kenduko zaizkio, aurreko kasuan adierazitakoa egitea ezinezkoa denean. Kasu horretan, dagokion erreklamazioa jarriko da ordaindutako bermea gainditzen duen kopuruagatik.

Nolanahi ere, kontratua suntsiarazi zein jarraitu erabakitzen badu ere, erakunde kontratugileak egokitzat jotzen duen denboran bere baliabide propioak erabiliz edo hirugarrenen bitartez kontratuarekin jarraitzeko erabaki dezake berak bakarrik. Bi kasuetan, enpresa kontratistak ordainduko du jarraipen horren kostua, kalte-galeren ordainaren eta klausula honetan jasotako ondorioak alde batera utzi gabe.

28. KONTRATUAREN LAGAPENA

SPKLren 98. artikuluan jasota dauden kontratistaren ondorengoa hautatzeko kasuak alde batera utzita, kontratua subjektiboki alda daiteke kontratuaren lagapenaren bidez soilik, klausula honetan ezarritako mugen barruan, eta aukera hori berariaz jasota baldin badago **Karatularen 22. puntuan**.

Lagapenak bete egin beharko ditu SPKLren 214.2 artikuluko a), b), c) eta d) letretan ezarritako baldintzak; hots:

a) Kontratazio-organoak berariaz eta aldez aurretik eman behar du lagapena egiteko baimena, SPKLren 214.2.a) artikuluan adierazitako baldintzetan. Baimen-eskaerari buruzko ebazpena jakinarazteko epea bi hilabetekoa izango da. Epe hori igaro ondoren hura emantzat hartu beharko da.

b) Lagatzaileak kontratuaren zenbatekoaren % 20 gutxienez gauzatuta izan behar du, SPKLren 214.2.b) artikuluan adierazitako baldintzetan.

c) Lagapen-hartzaileak sektore publikoko erakundeekin kontratuak egiteko gaitasuna izan behar du, eta, orobat, eskatutako kaudimen ekonomikoa eta finantzarioa eta kaudimen teknikoa edo profesionala izan behar ditu; gainera, ez du kontratatzeko inolako debekurik izan behar, SPKLren 214.2.c) artikuluan adierazitako baldintzetan.

d) Adjudikaziodunaren eta lagapen-hartzailearen arteko lagapena eskritura publikoan formalizatu behar da, SPKLren 214.2.d) artikuluan adierazitako baldintzetan.

Enpresa lagapen-hartzailea subrogatuta geldituko da lagatzailearen eskubide eta betebehar guztiei dagokienez.

29. AZPIKONTRATAZIOA

Enpresa kontratistak ezin izango ditu hirugarrenekin hitzartu, inolaz ere, funtsezkotzat jotzen diren eta Karatularen 23. puntuan ezarritakoaren arabera kontratatutako lanak osatzen dituzten zereginak.

30. KONTRATUA ALDATZEA

Kontratazio-organoak kontratua aldatu ahalko du SPKLren 205. artikuluan aurreikusitako kasuetan.

Gainera, kontratazio-organoak kontratua aldatu ahal izango **du Karatularen 24. puntuak** berariaz ohartarazten duenean aukera horren inguruan, puntu horretan jasotako termino eta baldintzetan.

Aldaketak egiterakoan, ezingo dira kontratuan aurreikusi ez diren prezio unitario berriak ezarri.

Kontratuaren aldaketak SPKLren 153. artikuluan xedatutakoaren arabera formalizatuko dira.

31. HARRERA ETA BERMEALDIA

Ulertuko da enpresa kontratistak kontratua bete duela prestazioa osorik burutzen duenean, kontratuaren terminoekin bat etorriz eta erakunde kontratugilearen gogobetetzearekin.

Harrera partzial guztietan, hala dagokionean, baita harrera totalean ere, erakunde kontratugilearen ardura izango da kontratistak prestazioa ondo gauzatu ote duen erabakitzea, hau da, kontratua betearazteko eta betetzeko jarritako baldintzak bete ote dituen erabakitzea, eta, beharrezkoa bada, bere ardura izango da kontratatutako prestazioak gauzatzeko eskatzea eta, prestazioak jaso dituenean akatsik ikusten badu, akatsak zuzentzeko eskatzea.

Kontratistari egotz dakizkiokeen akatsen ondorioz lanak kontratatutako prestazioarekin bat ez badatoz, erakunde kontratugileak prestazioa errefusa dezake eta ez du ordainketarik egin beharko edo, hala badagokio, ordaindutako prezioa berreskuratzeko eskubidea edukiko du.

32. KONTRATUA ETETEA

Erakunde kontratugileak kontratua eten ahal izango du, baldin eta SPKLren 208.2 artikuluan jasotako kalte-galerak ordaintzen badizkio kontratistari. Ondorio horietarako, artikulu hori berariaz aplikatzekotzat ezartzen da.

33. KONTRATUA SUNTSITZEA

Kontratua azkendu egingo da berori betetzeagatik nahiz ondoren arautzen denaren arabera hura suntsiaraztea erabakitzeagatik.

Kontratua suntsiarazteko kausak lirateke, erakunde kontratugilearen borondatez:

a) Beste edozein prozeduratan konkurtsoa deklaratzea edo kaudimengabezia deklaratzea.

b) Enpresa kontratista epeetan berandutzea.

c) Kontratuaren betebehar nagusia urratzea.

d) Funtsezkoak diren gainerako betebeharrak ez betetzea, baldin eta horiek halakotzat kalifikatu badira.

e) Prestazioa hasieran adostutako baldintzetan gauzatzeko ezintasuna, kontratua Agiri honetan xedatutakoaren arabera aldatu ezin bada.

f) Kontratua egikaritu bitartean, kontratistak ez ordaintzea soldatak bertan parte hartu duten langileei, edota ez betetzea aplikatu beharreko hitzarmen kolektiboetan langile horientzat ezarritako baldintzak kontratua egikaritu bitartean.

g) Oro har, kontratuko edozein betebehar ez betetzeagatik, Kode Zibilaren 1.124. artikuluan ezarritakoari jarraikiz.

h) Era berean, kontratua suntsiarazteko kausa izango dira SPKLren 313. artikuluaren 1. atalean ezarritakoak –ondorio hauetarako, hura berariaz aplikatzekoa deklaratzen da–:

   1. Prestazioa hasi baino lehen uko egitea edo kontratazio-organoari egotzi ahal zaizkion arrazoiengatik prestazioaren hasiera lau hilabetetik gora etetea, kontratua entregatzeko adierazi den datatik hasita.

   2. Uko egitea prestazioa gauzatzen hasi ondoren edo kontratua etetea zortzi hilabetetik gorako epean, kontratazio-organoaren erabakiz.

Klausula honetan kontratua suntsiarazteko aurreikusitako kasurik badago, automatikoki suntsiaraziko da. Halakoetan, erakunde kontratugileak hartu duen erabakiaren jakinarazpen fede-emailea egin behar dio enpresa kontratistari.

Jakinarazpena jaso eta gero, kontratistak erakunde kontratugilearen esku utzi behar ditu kontratatu diren zerbitzuak eskaintzeko ordura arte egindako dokumentu guztiak, eta kontratua dela-eta sortutako gainerako dokumentazioa edo informazioa, erakunde kontratugileak erabilitako eta enpresa kontratistari emandako agiriekin batera. Aipatutako dokumentazio guztia erakunde kontratugilearena izango da aurrerantzean.

Horrez gain, dagokion kontratuaren likidazio ekonomikoa egingo da ondoren, jarraian adierazten denaren arabera.

Klausula honetan jasotako arrazoiengatik edo legez egokiak diren arrazoiengatik kontratua suntsiaraztean eragiten diren erantzukizun ekonomikoak, edo legez dagozkionak, kontratua suntsiaraztean eta dagokion dokumentazioa aurkeztean likidatuko dira. Horrek ez du eragotziko, ordea, erakunde kontratugileak hura betearazten jarraitu ahal izatea.

Suntsiarazpen-kasu guztietan, benetan egin diren eta onartutako prestazio guztien prezioa jasotzeko eskubidea edukiko du enpresa kontratistak, hasiera batean.

Kontratua kontratistari egotz dakiokeen edozein arrazoirengatik suntsiarazten bada, erakunde kontratugilearen alde sortuko da **Karatularen 26. puntuan** jasotako zenbatekoa, kasuan-kasuan dagozkion kalte-galeren ondoriozko edozein ordainez gain. Bi kopuruak behin betiko bermetik eta kontratistari ordaintzeke dagoen preziotik kenduko dira eta soberakinaren erreklamazioa aurkeztuko da.

Aurrekoa alde batera utzi gabe, SPKLren 313. artikuluaren 3. atala aplikatuko da berariaz, hau da:

a) Klausula honen h.1 atalean aurreikusitako ebazpenen kasuan, kontratistak, kontzeptu guztiengatik, kontratuaren adjudikazio-prezioaren % 3ko kalte-ordaina (BEZik gabe) soilik jasotzeko eskubidea izango du.

b) Klausula honen h.2 atalean aurreikusitako suntsiarazpenen kasuan, kontratistak, kontzeptu guztiengatik, egin gabe utzi diren prestazioen adjudikazio-prezioaren % 6 (BEZik gabe) jasotzeko eskubidea izango du, mozkin industriala dela-eta.

Azkenik, kontratua suntsiarazi ahal izango da erakunde kontratugilea eta enpresa kontratista ados jarriz gero. Halakoetan, aldeen eskubideak haiek baliozkotasunez adostutakora egokituko dira.

34. ARAUBIDE JURIDIKOA

Kontratua pribatua da eta, prestaketari dagokienez, honako hauek arautuko dute: Administrazio Baldintza Partikularren Agiri honek, Preskripzio Teknikoen Agiriak eta, adjudikazioari dagokionez, Administrazio Baldintza Partikularren Agiri honek; eta, horietan aurreikusita ez dagoen guztian, SPKLTBean horri buruz ezarritako arauek (botere adjudikatzailea duten eta administrazio publiko ez diren sektore publikoko erakundeen artean egindako kontratuak erregulazio harmonizatuaren mende ez badaude).

Ondorioei eta azkentzeari dagokienez, honako hauek arautuko dute kontratua: Administrazio Baldintza Partikularren Agiri honek, Preskripzio Teknikoen Agiriak; eta, horietan aurreikusita ez dagoen guztian, zuzenbide pribatuko arauek. Nolanahi ere, kontratuari aplikatzekoak izango zaizkio SPKLren 319. artikuluan ezarritako arauak, "eraginei eta azkentzeari" dagokienez.

Gainera, aplikatzekoak izango dira SPKL eta 1098/2001 Errege Dekretua (urriaren 12koa, Herri Administrazioen Kontratuei buruzko Legearen Erregelamendu Orokorra onartzen duena), Agiri honetan testu arauemaile horietara jotzen duen guztian.

35. JURISDIKZIOA

Administrazioarekiko auzien jurisdikzioa izango da eskuduna kontratuak prestatzeari, adjudikatzeari eta aldatzeari buruz sortzen diren auziak ebazteko, azken horien aurkaratzeak oinarri duenean SPKLren 204. eta 205. artikuluetan ezarritakoa ez betetzea, ulertzen bada aldaketa horrek beste adjudikazio baten xede izan behar zuela.

Hala badagokio, errekurtsoa jarriko da Euskal Autonomia Erkidegoko Kontratuen inguruko Errekurtsoen Administrazio Organoaren aurrean, SPKLren 44. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoaren arabera.

Jurisdikzio zibila izango da eskuduna kontratuaren ondorioei eta kontratua azkentzeari dagokionez, klausula honen lehen paragrafoan aipatutako kontratu-aldaketak izan ezik.

I. eranskina. Abal-eredua.

[…] erakundeak (kreditu erakundearen izen soziala edo elkar bermatzeko sozietatea) (IFZ: […]; helbidea: […]) (jakinarazpenak eta errekerimenduak egiteko) eta, […](r)en izenean (ahaldunen izen-abizenak), egintza honetan behartzeko ahalorde nahikoarekin, dokumentu honen behealdean aipatzen den ahalordeen askiespenaren arabera, hurrengo ABALA EMATEN DIOTE: […] (izen-abizenak edo sozietatearen izena), (IFZ: […]; […](r)en aurrean; zenbatekoa: […] euro]), […] kontratutik eratorritako beharrei erantzuteko.
Erakunde abal-emaileak, bere erantzukizunpean, adierazten du Herri Administrazioen Kontratuen Legeari buruzko Araudi Orokorra onartzen duen urriaren 12ko 1098/2001 Errege Dekretuaren 56.2 artikuluan adierazitako eskakizunak betetzen dituela. Abala sinatzen da obligaziodun nagusiarekin solidarioki, esklusio- eta zatikatze-onurari espresuki uko eginda, eta […](r)en lehen errekerimenduan ordaintzeko konpromisoa hartuta.

Abal hau indarrean egongo da […](e)k berori ezereztea edo itzultzea baimentzen duen arte.

[…]-n, […](e)-ko […]-aren […](e)(a)n.

[Sinadura]

II. eranskina. Erantzukizunpeko adierazpen-eredua, eskatutako kaudimena egiaztatzeko edo/eta eskatutako bitartekoak atxikitzeko konpromisoa egiaztatzeko, beste erakunde batzuen kaudimenean edo/eta bitartekoetan oinarritzeko.

[Oharra: soilik aurkeztuko da lizitatzaileak eskaintzarik onena aurkezten badu edo, eskatutako kaudimena egiaztatzeko edo/eta eskatutako bitartekoak atxikitzeko konpromisoa egiaztatzeko, lizitatzaileak asmoa duenean beste erakunde batzuen kaudimenean edo/eta bitartekoetan oinarritzeko. ***Hirugarren erakundeak bete behar du]***

[…] jaunak/andreak (NAN: […]), […] enpresaren legezko ordezkari gisa (IFZ: […]), adierazten du bere helmen osoan ezagutzen dituela […] kontratatzeko baldintzak, zeinetan […] lizitatzaileak (enpresaren lizitatzailearen izena) parte hartzen duen, eta adierazten du, adjudikazioduna izanez gero, lizitatzaile horren esku jarri nahi dituela kontratua gauzatzeko behar diren baliabideak, Kode Zibilaren 1257.2 artikuluan xedatutakoa berariaz onartuta, eta berariaz baimendu beharko da hura ordezkatzea edo aldatzea, […](r)en bidez.

Idatzi hori […]ren aurrean aurkezteak berekin ekarriko du konpromiso hori onartzea, baldin eta lizitatzailea adjudikaziodun suertatzen bada.

[…]-n, […](e)-ko […]-aren […](e)(a)n.

[Sinadura]

III. eranskina. Europako Kontratazio Dokumentu Bakarraren (EKDB)

IV. eranskina. Jakinarazpenak jasotzeko lehentasunezko bidea izendatzea

[…] jaunak/andreak (helbidea: […] eta NAN: […]), bere izenean, edo […](r)en izenean eta haren ordezkari gisa (helbidea: […] eta NAN edo IFZ: […]), gaitasun juridiko eta jarduteko gaitasun osoz, ezagutzen du […] lizitazioa, eta honen bidez, honako hau izendatzen du lizitazio honen ondorioz […](e)k egin behar duen edozein jakinarazpen jasotzeko lehentasunezko bidea (*):

€ **Posta elektronikoa**

€ **Posta ziurtatua**

€ **Faxa**

(*) Adierazi zein den izendatutako bidea

Nolanahi ere, jakinarazpenetarako, honako datu hauek adieraziko dira:

Posta elektronikoaren helbidea: …….

Posta-helbidea: ……..

Fax-zenbakia: ……..

Harremanetarako telefono-zenbakia(k): ……..

[Oharra: Jakinarazpenei arintasun handiagoa emate aldera, gomendagarria da lizitatzailearen posta elektronikoa lehentasunezko bitarteko gisa izendatzea. Bitarteko hori guztiz baliagarria izango da jakinarazpenetarako, lizitatzaileak berak adierazitako bitartekoa baita. Hala ere, beste bide bat lehentasunezko gisa izendatzea onartzen da. Izendapen hori egin ezean, posta ziurtatu bidez jakinaraziko da, adierazitako helbidean.]

V. eranskina. Formulen bidez ebalua daitezkeen irizpideei buruzko proposamena.

[…] jauna/andreak (egoitza: […] eta NAN: […]), bere izenean edo […]-ren (egoitza: […] eta NAN edo IFK: […]) ordezkari gisa, erabateko gaitasun juridikoaren edo jardutekoarekin, eta […] prozeduraren bidez […] kontratatzeko lizitazioaren berri izan ondoren, idatzi honen bidez

HONAKO HAU ADIERAZTEN DU:

1. Kontratua betearazteko konpromisoa hartzen duela, baldintza hauekin bat:

2. Kontratua arautzen duen kontratu-dokumentazioa ezagutzen du, eta hura berariaz bere gain hartzen du osorik onartzen du.

[…]-n, […](e)-ko […]-aren […](e)(a)n.

[Sinadura]